

# ALITZA! PORRU



Euskal Herriko  
Trikitixa Elkarte  
L.G.: SS-418/01

EUSKAL HERRIKO TRIKITIXA ELKARTEAREN BOLETINA

2005eko uztaila / 17. zenbakia

## TROBADA IKASTAROAREN PRINTZAK



*Andoaingo Bastero Kulturunean, Soltxu eta Miriam ezkerrean panderoarekin, eta Sabin Jacques eta Joseba Iparragirre trikitixa jotzen. Elkarrekin jo zuten uneetako bat.*

Larunbatean, berriz, afaria egin zuten Aiako Kanua jatetxean, eta bertan, 40 bat lagun bildu ziren.

Euskal Herritik **Joseba Iparragirre** idiazabaldarrak parte hartu zuen ekimen honetan, baina Euskal Herriko trikiti doinuak ez ezik, kanpoko doinuez eta ohiturez gozatzeko aukera ere izan zen. Kantabriako **Soltxu eta Miriam**-ek beren musikarako grina eta kanturako indarra erakutsi zuten oholtza gainean, eta **Sabin Jacques**-ek soinu diatonikoa jotzeko maila bikaina.

**Andoaingo Bastero kulturunean** eskaini zuten **kontzertua** lau musikari handi hauek, ikastaroaren bezperan, ostiralean. Bide batez, laurak batera prestatutako kantu pare bat zirela medio, elkarrekin ikusteko aukera ere izan zen. Sabin Jacquesekin batera, Rachel Aucoin aritu zen, bai bere emanaldian, bai laurak elkarrekin jo zutenean ere. Kontzertuan 75 bat lagun bildu ziren, eta kontzertu **xume eta era berean interesgarria** izan zen. Musikari bakoitzak kantua hasieran piezaren inguruko berriak ematen zituen, eta horrek ikusleari asko lagundu zion, bai musikaz are gehiago gozatzeko, eta baita bakoitzaren kulturari buruzko hainbat zertzeladaren jabe egiteko ere. Ikus-entzuleak oso pozik eta giroan

erabat murgilduta izan ziren saio osoan, eta bertan bildutakoen esanetan, gutxi bezalako emanaldia izan zen, luxuzkoa, hein batean. Lastima jende gehiago gerturatu ez izana.

**Ikastaroa**, berriz, **Zarauzko aterpetxean** izan zen, eta guztira **25 lagunek** parte hartu zuten, 8 kataluniar tartean. Trikitixa Elkarteko bazkideak, berriz, 13 ziren, erdia gutxi gorabehera. Guztiak ere ikastaroarekin erabat harriz eta gustura geratu ziren, eta esperientzia zinez aberasgarria izan zela aipatu zuten. Hiru parajetako musikari handi, hiru irakasteko modu, hiru interpretatzeko era, eta mila gauzarekin ikasi eta gozatzeko parada. **Joseba Iparragirrek** bere azken konposizioen berri eman zuen. Kantuak nola egin, eta bere azken lanek erritmo, melodia eta armoniari dagokionez zein ezaugarri dituzten irakatsi zuen. Azken batean, konposatzeko unean, alor horiek nola landu bistaratu zuen. Bidenabar, ikasleek bere azken emaitzak ezagutzeko aukera izan zuten.

**Sabin Jacquesek**, bere estiloari jarraiki, ilara bakarrean jarri zituen guztiak, eta bere irakasteko moduak eta sei tonotan jotzeko abildadeak erabat txunditu zituen ikastaroan izena emandakoak.

Kantabrietik, berriz, gogotsu eta indartsu hurbildu ziren **Soltxu eta Miriam**. Ikastaroa oso prestatuta ekarri zuten, eta ikasle bakoitzari koplak bilduma eder bana eman zioten. Letrez gain, panderoa jotzeko erritmo eta modu ezberdinak zeuden irudikatuta kantu-sortan. Hainbat teknika probatu zituzten ikasleekin, oso praktikoak, gainera. Bestalde, beren kantatzeko moduak, ahots bakarrean, garai bateko pandero-jotzaileen indar eta bizitasuna gogorarazi zuen. Beren oihartzunak luze irauten du denon gogoan.

Hiru paraje, hiru kultura, trikitixara hurbiltzeko hiru musika-molde, eta lanean jarraitzeko hamaika bide zabalik.

# NAFARROAKO TRIKITIXA EGUNA ELIZONDON

**Nafarroako VIII. Trikitixa Eguna** ospatu zen Elizondon, **maiatzaren 22an**. Bertan 300 trikitilari bildu ziren, eta bazkaritan, berriz, 530 lagun izan ziren. Jende ugari bildu zen festa honen aitzakian, eta giro polita sortu zen.

Nafarroako hainbat eskolak parte hartu zuten, **8 trikitixa-irakasleren** esanetara. Hori dela eta, lau taldetan banatu zituzten parte-hartzaileak. Lautik hiru talde Elizondoko inguruko herrietan barna ibili ziren, trikitixari gogor emanaz. Laugarren taldeak Elizondo herria dantzan jartzea izan zuen helburu. Gosari-legea bete, eta goizeko hamaika eta erdiak aldera kalejirak joz ekin zioten trikitixaren egun handiari. Ordu biak aldera, berriz, bazkaritarako batu ziren guztiak pilotalekuan, parte-hartzaileak eta nahi zuen oro, gazte eta heldu. Euri pixka batek bazkaritarako leku pilotalekua aukeratzea eragin zuen, eta bertan **Kataluniako Eskamot Tamarro** taldea entzuteko aukera izan zuten.

Bazkalondoren, trikitixaren oihartzuna ez zen eten, trikitixa-eskola bakoitzak bere emanaldia eskaini baitzuen, eta ondotik, herriko plazan **Trikizio** taldearekin erromeria izan zen. Egunpasa polita Elizondokoa, eta guraso, ikasle eta bertan bildutakoek pozik bukatu zuten eguna, trikitixaren arrimuan.



*Hainbat trikitixa-eskolak parte hartu zuen Elizondon, eta, beraz, kaleetan barna trikitixak eta trikitixazaleek agindu zuten. Haurmultzoko handia ageri da argazkian, panderoa astinduz.*



*Elizondoko pilotalekuan jende asko bildu zen bazkaritarako.*

## DEBA GOIENAKO I TRIKITIXA EGUNA

**Maiatzaren 14an** ospatu zen Deba Goienako I. Trikitixa Eguna. Aurten Arrasaten izan da, eta datorren urteari begira, Arrasatekoek **Aretxabaletakoei** eman diete **lekukoa**; trikitixaren jaiak bailarako herri guztiak ezagutzeko bidean.

Arrasaten ere bailara osoko trikitixa-eskolek parte hartu zuten, lauk guztira. Goizean kalejiran ibili ziren, denera **130 bat lagun**,

eta eguerdi aldera, ordubeteko saioa eskaini zuten ikasleek. Beraz, trikitixa-eskola bakoitzak izan zuen aukera eurek ikasitakoaren berri emateko. Saioaren ondotik, bazkaritarako tartea hartu zuen, jai giro ezin hobean, eta arratsaldean **Ene Bada** taldeak alaitu zituen bazterrak. Aurtengo ekitaldi honen ondotik, urtero antolatzeke asmoa adierazi zuten antolatzailak, eta, hortaz, datorren urtean Aretxabaletari begira jarri beharko dugu.

## 2005EKO UZTAREN FRUITUAK

### LIBURUAK

- **Soinuaren Liburutegia** bildumaren **6. aleak** ikusiko du argia aurten. **Zumarragako Trikitixa** izango da protagonista, eta Zumarragako bertako lagun bat arduratuko da liburu hau idazteaz, **Antxiñe Mendizabal**.

- **Bi partitura-liburu** izango dira kalean aurten, interesgarriak oso. Batetik, Manuel Sodupe **Gelaxoren** lehenengo grabazioetako partiturak, eta, bestetik, **Pirinioetako** errepertorioa bilduko da beste liburu batean. Azken honetan, Katalunia, Aragoi, Okzitania eta Euskal Herriko hainbat abestiren partiturak jasoko dira.

### JARDUNALDIAK

- Trikitixari buruzko jardunaldiak **irailaren 5etik 9ra** izango dira. Aurten **kopla** hartuko dute ardatz, eta beste batzuen artean, gonbidatu hauek izango dira bertan: Xabier Kaltzakorta, Joxe Mari Iriondo, **Xabier Amuriza eta Laja eta Landakanda**.

### NAZIOARTEKO TRIKITIXA JAIALDIA

- Nazioarteko Trikitixa Jaialdia urriaren 28-29an izango da. Urriaren 28an **Bilboko Kafe Antzokian**, eta hurrengo egunean, 29an alegia, **Kursaalen**. Aurtengoan, laugarren aldiz jarraian, hemengo eta kanpoko partaideak ikusteko aukera bikaina izango da udazkenean, betiko legez.

# DISKO BERRIAK

## Laja, Eguren eta Ziolar: AZKEN JAZPANA

Iñaki Garmendia *Laja* soinu-jotzaileak, Enrike Eguren saxofoi-jotzaileak eta Jose Makazaga *Ziolar* bateria edo jazpan-jotzaileak, Cesar Ibarretxe teknikaria aldean hartuta, **20 abestiz** osatutako **disko koloretsua** kaleratu dute udaberrian, **Elkarren eskutik**. Ia ordubete irauten duen disko honetan, azkenaldian gure herri gehienetan nahikoa galduta dagoen giroa berreskuratzea izan dute helburu. Soinua, saxofoia eta bateriarekin (jazpana) aritu dira, eta **1950. hamarkadatik aurrera** jazpanak izan zuen presentzia berriz ere gure etxeetara ekartzeko asmoari gogotik heldu diote. Inork gutxi izan du erromerietan hirukote honek adina parte hartzeko aukera, eta urte luzeetan egindako lanaren erakusgarri ere bada, hein batean, beren azken lan hau. **Jazpanak arrakasta handia izan zuen**, trikitixaren errepertorioa nabarmen aberastu baitzuen, eta bere **jarraitzaileak ezagunenak Kaxiano eta Gelatxo** izan dira. Hain juxtu, Eguren eta Ziolar Gelatxorekin aritu ziren, hura desagertu eta orain dela bost bat urte Lajarekin elkartu ziren arte.

Pasodobleak, rumbak, baltsak, rantxerak, boleroak, arin-arinak, sanbak, fandangoak eta beste **hainbat dantzarako doinu** aurkituko ditugu, duela hainbat urtetako erromerietan

bezalaxe. Den-denak **oso ezagunak** eta gustagarriak: "Kuba, bai polita dela", "Euskal Herri maitia" (Cuando salí de Cuba), "Andere" (Mira que eres linda), gehien-gehienak Kaxianok berak euskaratuak.



# ETORRIKO DIRA BERRIAK

## Balentin Aldalur, Zialtzeta (1930-2005)

**Maiatzaren 29an** hil zen **Zialtzeta** handia, 75 urterekin. Aian jaio zen, Zialtzeta baserrian, eta handik zetorkion goitizena ere. Dena den, Usurbilen bizi izan zen urte luzez. Trikitilari aiarrak Jazinto Rivas *Elgetarekin* ikasi zuen soinu txikia jotzen. Elgetaren grabazio bakarra ere berari zor diogu, berak erosi baitzion Pepe Andoaini bobina. Berak, dena den, ez zuen grabazio komertzialik egin, nahiz eta Loiola Irratian eta Arraten grabazioak badauzkan.

Makina bat erromeria alaitu zituen Zialtzetak. Bera jaio eta



Zialtzeta, Ernio magalean.

bizitako ingurumarian, Aginagan, Aian bertan eta Usurbil aldean ibili zen erromeriaz erromeria; baita Ernio magalean ere. Umetatik ezagutzen zuen ondo Ernioko bidea Zialtzetak. Aiako eta Asteasuko umeak ibiltzen omen ziren Ernioko gurutzeraino astoak kargatu eta materiala igotzen. Geroztik hamaika erromeria egin zituen, soinu txikia lagun. **Primi Erostarbarekin batera** ibiltzen zen soinua jotzen.

Orain dela bi urte, **2003. urtean**, Euskal Herriko Trikitixa Elkarteak **omenaldia** eskaini zion, gerraosteko beste hainbat trikitilari ere tartean zirela: Maltzeta, Zabaleta, Alegiko Juan eta Landakanda, besteak beste. Goian bego Zialtzeta.

## Luis Etxebarria Zollo (1927-2005)

Luis Etxebarriak **1999an** jaso zuen **omenaldia** lurretan, Bixente Barrena, Jose Ramon Bilbao, Julian Larrinaga eta Manolo Maguregirekin batera. Sei urte geroago esan digu agur, 78 urterekin. Bere aitak, *Piti* ezizenez ezagunak, irakatsi zion soinua jotzen. Aita 1979an omendu zuten lurretan, semea baino hogeitau urte lehenago.

Luis Etxebarria gaztetatik hasi zen panderoa jotzen, eta erromeria askotan parte hartu zuen: Zollon, Orozkon, Loza haranean, ezkontza jaietan... Garai hartan baso eta auzo erromeria, jai, txarriboda, agur-afari eta ezkontza bazkarietan parte hartzen zuen. lurretako omenaldietan ere ez zuen hutsik egingo Luis Etxebarriak. Trikitilari askoren lagun izan zen, eta garai batean Maturanarekin ere ibili zen. Eskualdeko beste hainbat trikitilariarekin ere izan zuen harremanik: Durangoko Iturralde, Apatako Gerrikagoitia, Abadinoko Lazaro Urien, eta Berrizko Ladrillerorekin, esaterako. Basurtoko Jai Alai dantza taldeak erosi zion trikitia, eta trikitixa horrekin ikasi zuten jotzen Iñaki Zabaletak, Kepa Junkerak eta garaiko hainbat gaztek ere. Azken urteetan bere seme Koldorekin eta Julian Larranagarekin zebilen.

# HAUSPO ZAHARRAK



Felix Aranzabal Angiozarko itsua eta Manuel Sodupe Gelatxo (1888-1953) ageri dira irudi zahar bezain samur honetan. **Angiozarko itsua** Aguleta baserrian jaio zen, 1919an, eta umetan galdu zuen ikusmena. Soinu handia ederki jotzen zuen, eta makina bat erromeria alaitu zituen bere garaian. **Manuel Sodupe Zubizarreta** Gelatxo baserrian jaio zen, Elgoibarren, eta hortik datorkio ezizena ere. Gipuzkoa aldean behintzat, gerra bitartean, bera izan zen soinu-jotzailerik sonatuena, eta erreperitorio zabalaren jabe zen. Panderoarekin bere emazte Juliana Esnaolak (1892-1974) laguntzen zion gehienetan. Dohain aparta omen zuen piezak moldatzen ez ezik, inprobisatzen ere, sortzaile handia zen seinale.

## KALEJIRAN

- **Araba Euskaraz** aurten Amurrion ospatuko da, **ekainaren 19an**. Euskararen festa honetan ere entzun ahal izango da trikitixarik, **Tapia eta Leturia** eta **Urgaberen** doinuen eskutik.
- Gogoan izan, **www.trikimailua.com** helbidean trikitixari buruzko hainbat datu interesgarri aurkitu ahal izango dituzuela: artikuluak, idazlanak, argazkiak, doinuak, prentsako aipamenak, hitzaldiak, omenaldiak, koplak... hori guztia dago edonoren eskura, eta, beraz, aprobetxa ezazue.

## TRIKITIXA ENTZUN

Balentin Aldalur *Zialtzeta* maiatzaren 29an hil zen, eta, hori dela eta, bere omenez, ekainean bere doinuak entzun ahal izango dira, MP 3 formatuan.

- **Zialtzetaren dantza loturako pieza**
- **Zialtzetaren arin-arina**
- **Zialtzetaren fandangoa**
- **Zialtzeta solasean, Miel Harana eta Eleuterio Jauregi Belokirekin.**

Azken hiru grabazio hauek 1994ko martxoaren 12an egin zituzten Miel Haranak eta Eleuterio Jauregik Usurbilen

## GALBAHEA

Iñaki Garmendia Laja

"Lehen jendea egoten zen amorratzen musikariak atera zain; egun, berriz, gu egoten gara amorratzen jendea etorri zain". **Gara, 05-04-15**

"Orkestra handiak uzten ari dira eta txikiak ere ez dakit nola dabiltzan. Galtzen ari da pixka bat jazzbanaren joera hau. Baina gazte batzuk badabiltza, eta baliteke jazzbana indartzea". **Berria, 05-04-16**

Imanol Arregi Iturbide

"Batzuek guri ardoa ematen ziguten, edanak erasango baligu bezala. Nik beti esaten nuen ez dela edana gu mugitzen gaituena, ez gu eta ez bertsolariak: aurreko giroa da gu mozkortzen gaituena". **Berria, 03-15**

## AGENDA

Udara hurbiltzearekin batera, festetarako agenda bete-bete eginda dugu. Hona hemen, zenbait aukera.

### EKAINA

- **Tapia eta Leturia**
  - 23: Leioan (B)
  - 24: Aiako Iturrietz auzoan (G)
  - 25: Hernanin (G)
- **Trikizio**
  - 23: Altsasuko plazan (N), 23.00etan
  - 24: Aulestiko plazan (B), 23.00etan.
  - 26: Abaltzisketako plazan, (G), 23.00etan.
- **Triki Ta Ke**
  - 23: Donostiako Sagues auzoan (G), 23.00etan
  - 25: Abaltzisketako plazan (G), 23.00etan
- **Kepa Junkera**
  - 24: Polonian, Jelenia Gora-ko Zary parkean, 22.00etan
- **Maider eta Ixiar**
  - 29: Beizaman (G)

### UZTAILA

- **Tapia eta Leturia**
  - 1: Eskoriatzan (G)
  - 2: Sarge Les Le Mans-en, Frantzian
  - 9: Lezaman (B)
  - 15: Ermuan (B)
  - 16: Añorgan (G)
  - 22: Plentzian (B)
- **Kepa Junkera**
  - 2: Ansó-n, PIR 05 Jaialdian, Huescan
  - 4: Marruecos-en, Timitar en Agadir Jaialdian
  - 22: Mutrikun (G)
- **Trikizio**
  - 2: Orbaizetan (N)
  - 9: Lezaman (B)
  - 15: Alegian (G)
  - 16: Kuartangon, (A)
  - 17: Gorlizan (B)